



PONTIKAKO GARAJEAK (informazioa)

1.- PLEGUEN LABURPENEA

A. PLAZEN KOPURUA

Eraikinak 4 solairu edukiko ditu, eta bertan 180 aparkaleku plaza kotxeentzat eta 6 aparkaleku plaza motorrentzat egongo dira. Plaza hauen banaketa hau da:

- 83 plaza irekita TAOrekin (1., 2. eta 3. solairutan)
- 66 plaza irekita alokairuan kotxeentzat (4 urte) (1. eta 2 solairutan)
- 6 plaza irekita alokairuan motorrentzat (4 urte) (1. solairuan)
- 31 plaza irekita emakidan (50 urte, hau da 2074 urte arte) (0. solairuan)

Plaza hauetatik, elbarrientzat hauek erreserbatzen dira:

- 1 plaza emakidan
- 2 plaza alokairuan
- 3 plaza TAOrentzat

B. BETEBEHARREKO BALDINTZAK

1.- Baldintzak eta dokumentazioa:

1.1. Pertsona fisikoak

- Ibilgailu automobil baten titularra edo ohiko gidaria izatea.
- Errenterian erroldatuta egon behar du.
- Plaza eskatzen den ibilgailuaren zirkulazio baimena erroldaren helbide berdinean.
- Indarrean dagoen gidatzeko baimena erroldaren helbide berdinean.
- * **Baimenak garaje plaza eskatzen duenaren izenean egon behar dute**

1.2. Pertsona juridikoak (Eskaera telematikoa)

- Ibilgailu automobil baten titularra edo ohiko gidaria izatea.
- Merkataritza, profesional edo industriako jarduera baten titularra izatea eragin-eremuan. Jardueraren lizentziarekin egiaztatu behar du.
- Plaza eskatzen den ibilgailuaren zirkulazio baimena jardueraren helbide berdinean. **Eskatzen duen pertsona juridikoaren izenean egon behar du.**
- Indarrean dagoen gidatzeko baimena. **Enpresa edo entitatearekin lan-lotura edo profesionala duen pertsona fisikoaren izenean egon behar du.** Lotura sinesgarri izateko moduan egiaztatu beharko du.

1.3. Pertsona mugikortasun murriztuarekin

- Errenterian erroldatuta egon behar du.
- Plaza eskatzen den ibilgailuaren zirkulazio baimena erroldaren helbide berdinean.
- Indarrean dagoen gidatzeko baimena erroldaren helbide berdinean.
- Minusbaliotasun maila aitortzen duen egiaztagiria:
 - %65 edo gorako minusbaliotasun maila EDO
 - >%33 eta <%65 mugikortasun murrizteko maila (A, B edo C letretan daudenak. Edo D, E, F, G edo H letretan daudenak eta mugikortasunean 7 puntu edo gehiago dutenak)

* Minusbaliatua bera gidari ez den eta hartaz arduratzen den pertsona bat behar duen egoeretan, Gizarte Txostena egingo zaie, egoeraren berezitasuna baloratu daitezten.



2.- Lehenetsuna edukiko dute garaje plazarik ez duten pertsonak (ez jabetzan, ez azalera-eskubidean, ez emakidan, ez usufruktuan), %50etik beherako titulartasuna dutenak izan ezik. I.Eranskinean zehaztutako eragin eremuan aurkitzen direnak. (Dokumentu honen E puntuan zehazten dena)

C. EMANGO DIREN PAUSUAK

1. Eskabideak erregistratu ZU! Zerbitzuan edo telematikoki. **Ez dute dokumentaziorik ekarri behar.** Eskaera bertan sinatuko dute erantzukizupeko adierazpena, baldintzak betetzen dituztela aitortzen.

2. Dagozkion egiaztapenak egin ondoren behin-behineko zerrenda onartuko da, eta modalitate bakoitzeko (emakidan edo alokairua) 2 zerrenda egingo dira:

2.1. Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako erreserbatutako plazak.

2.2 Gaineko plazei dagozkien eskabideak.

EMAKIDAN		ALOKAIRUA	
Desgaitasuna dutenek	Gainontzekoak	Desgaitasuna dutenek	Gainontzekoak

Zerrenda horretan baldintza guztiak betetzen dituen edo, betetzen ez duen baldintza zehaztuko da. Behin-behineko zerrendaren ordena, eskaera aurkezten den egunaren arabera izango da, eta ez du eraginik izango lehenetsunaren hurrenkeran.

**Zozketa zenbakia behin betiko zerrenda onartzean emango zaio pertsona bakoitzari (4. puntua).*

3. Behin behineko zerrenda argitaratu ondoren, 10 egun baliodun emango dira, aipatutako baldintzen zuzenketak egiteko edo, erreklamazioak sartzeko.

4. Epea bukatu eta gainontzeko egiaztapen guztiak egin ondoren, behin-betiko zerrendak onartuko dira. **Honetan zozketarako zenbakiak emango zaizkie baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei.**

5. Plaza baino eskatzaile gehiago badago, zozketa publikoa egingo da udaletxean. Zozketaren ezaugarriak:

a) Lehenik emakida eskubideak zozketatuko dira.

b) Alokairuko plazen aldi baterako baimenak zozketatuko dira.

* Plaza nahikoak badaude, zozketa egingo da eskatzaileek plaza zein ordenetan aukeratuko duten zehazteko.

* Herriarrek bi aukeretan parte-hartzeko eskaerak egin dezakete, baina lehenetsutako aukeran suertatuz gero, bigarrenengoari uko egiten diela ulertuko da eta modalitate horretako itxaron-zerrendaren bukaerara pasako dira.

* Zozketan tokatu ondoren uko egiten badie plazari, dagozkien zerrendaren bukaerara pasako dira.

* Zozketaren ordena lehenetsunaren arabera egingo betiere lehenengo taldekoen zozketa ondoren plaza hutsak baldin badaude, hurrengo taularen arabera egingo da:

EMAKIDA	Erreserbatuak	1º.- A taldekoak (garajea ez dutenak eta eragin eremukoak)
		2º.- A taldekoak bigarren plaza (garajea dutenak eta eragin eremukoak)
		3º.- B taldekoak (Errenterriko gainontzeko biztanleak)
	Gainontzekoak	1º.- A taldekoak (garajea ez dutenak eta eragin eremukoak)
		2º.- A taldekoak bigarren plaza (garajea dutenak eta eragin eremukoak)
		3º.- B taldekoak (Errenterriko gainontzeko biztanleak)
		4º.- C taldekoak (Eragin eremuko pertsonak juridikoak eta merkatariak)



ALOKAIRUAN KOTXEA	Erreserbatuak	1º.- A taldekoak (garajea ez dutenak eta eragin eremuak)
		2º.- A taldekoak bigarren plaza (garajea dutenak eta eragin eremuak)
		3º.- B taldekoak (Errenteriako gainontzeko biztanleak)
	Gainontzekoak	1º.- A taldekoak (garajea ez dutenak eta eragin eremuak)
		2º.- A taldekoak bigarren plaza (garajea dutenak eta eragin eremuak)
		3º.- B taldekoak (Errenteriako gainontzeko biztanleak)
		4º.- C taldekoak (Eragin eremuko pertsonak juridikoak eta merkatariak)
ALOKAIRUAN MOTORRAK	1º.- A taldekoak (garajea ez dutenak eta eragin eremuak)	
	2º.- A taldekoak bigarren plaza (garajea dutenak eta eragin eremuak)	
	3º.- B taldekoak (Errenteriako gainontzeko biztanleak)	
	4º.- C taldekoak (Eragin eremuko pertsonak juridikoak eta merkatariak)	

6. Zozketa egin ondoren plaza hautatzeko lehentasun-hurrenkera eta itxaron zerrenda egingo dira, zozketaren hurrenkerearen arabera.

7. Plaza aukeratzeko lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren, Ondaretik tokatu zaien pertsonari deitu eta 3 egun emango zaie plaza aukeratzeko eta banku-helbideratzea aurkezteko. Epe hori bete ondoren ez badute aukeratu, zerrenda korritu eta amaierara pasatuko dira.

8. Behin plaza aukeratu eta dokumentazioa aurkeztu ondoren, Ondaretik kontratua sinatzeko hitzordua emango zaie.

9. Esleipen guztiak egin ondoren (kontratuak eta giltzak eman), sortutako itxaron zerrendan ez dauden herritarrak, beti bezala, eskaerak erregistratzen hasi daitezke eta itxaron zerrendara pasako dira. Eskaera berri hauek, itxaron zerrendako azken lekuan kokatuko dira eta eskaera dataren arabeko ordena jarraituko dute.

D. PREZIOAK

d.1. Emakidan

Esleipen prezioa... 14.500€ + %21BEZ = 17.545€

Mantenua..... 50€ hiruhileko

d.2. Alokairuan

Kotxea..... 55€ hilero eta 75€ko fiantza.

Motorra..... 25€ hilero

E. LEHENTASUNA ETA ERAGIN EREMUA

Plazak esleitzeko hauek izango dira lehentasunak:

A

Kale hauetan bizi diren egoiliarak eta garaje plazari ez dutenak:

- Beraun kalea 1, 3, 5, 7, 9, 11, 13, 15, 17, 19, 21, 23, 25, 27, 29C, 29E, 29D
- San Marko gunea 1
- Arramendi pasealekua 3, 5, 7, 11, 13, 15, 17, 19, 21, 23, 25
- Norberto Almandoz kalea 1, 3, 5
- Galtzaraborda etorbidea 35, 37, 39, 41, 45



- Jesus Guridi kalea 1, 3, 5, 7, 9, 11
- Juan Krisostomo Arriaga kalea 1, 3, 5
- Igantzi kalea 34
- Arditurri kalea 1, 3, 5, 7, 9, 11
- Pontika kalea 2, 4, 6, 8, 10, 12, 14
- Miguel Zabaleta kalea 1, 2, 3, 4, 8, 10, 11, 12, 13
- Altxu kalea 1, 3
- Jose Miguel Barandiaran kalea 1, 3, 9, 11, 13
- Zabaleta Anaïen kalea 1,2, 3, 4
- Maria Lezo kalea 8, 10, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 34, 35, 37, 39
- Tulle kalea 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8
- Morrongilleta kalea 9, 11, 13, 24, 26, 28, 30, 32
- Aralar plaza 1, 2
- Urbasa kalea 2

B

Oro har, Errenteriako egoiliarak; hau da, beste kaleetan bizi diren Errenteriarak.

C

Merkatari, enpresaburu edo profesional izaera duten pertsona fisiko edota juridikoak, jardueraren benetako egoitza, goian aipatutako eragin-eremuan dutenak.

2.- OHIKO GALDERAK

2.1. Zenbat eskaera egin daitezke etxebizitza bakoitzean? Kotxea izanez gero, erroldatuta dauden guztiak eskaera egin dezakete?

Bai, eskaera egin dezakete guztiak, eta baldintzen konprobaketa egiterakoan egoera zibila eta ondasunen-araubidea kontuan izango dira, eta horren arabera emango da emakida edo alokairu kopurua. Adibidez, irabazpideko ondasunen-araubidean egonda ezkontideak emakida edo alokairu plaza bakarria izateko aukera izango dute (hurrengo galderan erantzuten dira kasu ezberdinak).

2.2. Bikote bat irabazpideko ondasunen-araubidean (régimen de bienes gananciales) edo ondasunen banantze-araubidean (régimen de separación de bienes) ezkontuta egoteak ze eragin dauka eskaera egiteko orduan? Eta eskualdaketa egiteko orduan?

Irabazpideko ondasunen-araubidean egonda ezkontideak emakida edo alokairu plaza bakarria izateko aukera izango dute. Aldiz, ondasunen banantze-araubidean baldin badaude, bakoitzak emakida edo alokairu plaza izateko aukera izango du.

2.3. Desgaitasunen kasuan eta zozketa egin behar izanez gero, tokatzen ez zaien pertsonekin itxaron zerrenda bat egiten da? "Gainontzekoen" zerrendan ere sartzen dira, hau da, bi zerrendetan egotea gertatu daiteke? Ze lehentasunak dituzte?

Mugikortasun murriztua eta iraunkorra dutenentzat, plaza bat dago herri-jabari emakidarako eta 2 plaza daude aldi baterako erabilerako. Horientzat itxaron zerrenda egongo da.

Gainontzekoen zerrendan sartzeko aukera daukate, hala ere, mugikortasun murriztua dutententzako plazak baldintza bereziak dituzte (adibidez, zabalera) eta baliteke plaza arrunta nahikoa ez izatea. Lehentasunari dagokionez, lehentasuna izango dute aipatutako hiru plaza horietan, gainontzekoetan zerrendaren hurrenkera jarraituko da.



2.4. Garaje-plaza bat zuzenean eskualda daiteke?

- Bai, baina soilik emakidaren kasuan. Garaje-plaza bat zuzenean eskualda daiteke itxaron-zerrendara joan gabe, kasu hauetan:
 - Legezko banaketa edo dibortzio egoeretan, etxebizitzan geratzen den ezkontidearen alde
 - Heriotzaren bat izanez gero, derrigorrezko edozein oinordekoaren alde
 - "Bizi direnen arteko" transmisioetan derrigorrezko edozein oinordekoaren alde
- Udalari eskaera egin behar zaio eta honek onartu egin behar du.
- Ez badira kasu hauek ematen, zerrendako herritarrei eman behar zaio eskualdatzeko aukera

2.5. Garaje-plazak laga edo alokatu daitezke?

EZ. Esleitutako plazak titularrek erabili beharko dituzte zuzenean, ezin dira alokatu ezta hirugarrenei laga.

2.6. Garajeen balioa eta prezioa igo ala jaitsi egiten da urteekin?

Emakidan diren gara-plazaren balioa handitzen joango da IPC-aren arabera, baina era berean, prezioa linealki jaisten joango da lagapena egin zenetik igarotako urteen arabera.

Alokairuaren prezioak, urtero eguneratuko dira osoko bilkuraren akordio bidez.

2.7. Tokia egonez gero, ibilgailu bat baino gehiago sartu daiteke?

EZ. Nahiz eta tokia egon, eskaeran jarritako matrikula duen ibilgailua bakarrik egon daiteke aparkatuta. "Trastoak" ere ezin daitezke pilatu. Oso garrantzitsua da, zerbait gertatuz gero, aseguruak aipatutako ibilgailua bakarrik aseguratuko baitu.

Beraz, aparkalekuan edo erabileran aldaketaren bat egin nahi izanez gero, aldezturik Udalari jakinarazi behar zaio eta baimendu egin beharko die.

2.8. Alokairuaren kasuan, gehienez 4 urte eduki dezakete. Udalak abisatzen die kontratua bukatu zaiela eta garajea utzi behar dutela?

Bai, dagokionean Udalak erabiltzailearekin harremanetan jarriko da epearen bukaera jakinaraziz.

2.9. Garaje plaza bat alokatzeko/erosteko, berdin du beste garaje plaza bat edukitzea?

Emakidan edo alokairu kasuan berdin jokutzen da.

Lehendabiziko zozketa honetan, pleguetan jartzen duenez, A zerrendan daudenek, plazak libre egonez gero aukera dute beste plaza bat lortzeko.

Behin hasierako esleipen prozesu hau bukatzean, eskaera egin dezakete, baina itxaron-zerrendaren bukaeran egongo dira beti, lehentasuna baitute garaje-plaza ez dutenek. Noizbait suertatuz gero, eskaeraren momentuan plaza libre dagoela eta ez dagoela inor zerrendan, orduan ahalko litzaioke kontratua egin, baina oso arraroa da egoera hori.